

Hitzekin solasean, Bilbon

"Eztabaidak literaturarekin" programak Toti Martinez de Lezea eta Jose Luis del Corral idazleak bilduko ditu eleberri historikoari buruzko topaketan.

"Eztabaidak Literaturarekin" programaren bigarren denboraldia bihar hasiko da, Toti Martinez de Lezea eta Jose Luis del Corral idazleek eleberri historikoari buruz egingo duten topaketarekin.

Otsailean, programak Kirmen Uribe eta Vicente Molina Foix elkartuko ditu fikzioaren mugak araka ditzaten, eta martxoan, berriz, Bernardo Atxagak eta Joxemari Iturraldeak irakurtzeko eta idazteko ekintzaz hitz egingo dute. Atxaga eta Iturralderen arteko topaketa euskaraz egingo da oso-osorik, baina nahi duenak gaztelaniaz ere entzun ahal izango du bat-bateko itzulpen zerbitzuaren bidez.

"Eztabaidak Literaturarekin" programa, liburua eta literatura sustatzeko asmoz Bidebarrietako Liburutegian eratu den eskaintza da, Bidebarrieta Kulturguneak sustatua.

Topaketa guztiak (urteko lehena bihar) hileroko maiztasunaz egingo dira, asteartetan, 19:30etik aurrera, Bidebarrietako Liburutegiko ekitaldi aretoan, kazetari baten aurkezpen eta gidaritzapean.